

GAZTE SARIA: 150 € - KARMELE URIBESALGO ALZOLA (Bergara – 23 urte)

Kaixo, laztana:

Denboralditxo bat igaro da azkeneko aldiz idatzi nizunetik. Azken bolada honetan oso lanpetuta egon naiz eskolan umeekin egin behar genuen jaialdia prestatzen, eta ez dut denborarik izan eseri eta zuri gutun bat idazteko. Sukaldeko egutegian gaurko eguna gorriz markatuta daukadalako idazten dizut. Normalean, medikuarengana joan behar naizela edo bilera bat daukadala adierazten du horrek, baina gaurko egun seinalatuaren arrazoia beste bat da. Zure eguna da gaur, Mamadou.

Saharako udaberriko goiz batean etorri zinen mundura. Zeharo lanpetuta ibiliko nintzen orduan ere, betiko antzera, eta ez nekien nigandik kilometro askotara zoriotsu egingo ninduen mutiko bat jaio berri zela. Zazpi urte beranduago ezagutu zintudan, uda igarotzera gure etxera ekarri zintugunean. Ilusioz hartu zintugun, baita urduritasunez ere. Esperientzia berri bat zen denontzat; zuretzat eta guretzat. Ez genekien nolakoa zinen, zeintzuk ziren zure gustuak, ezta zer gorrotatzen zenuen ere.

Sarritan gogoratzen naiz parkean jolasean aritzen ginen arratsaldeez. Baita hondartzan igarotzen genituen egunez ere. Zuri ikaragarri gustatzen baitzitzaizun hondarrarekin gazteluak egin eta olatu artean saltoka ibiltzea. Askotan oroitzen naiz zurekin abesten genituen kantez eta ohera joan aurretik irakurritako ipuinez.

Baina orain ez zaude gurekin halako uneak pasatzeko. Duela lau urtetik ez daukagu zure berririk. Ez dakigu ondo zauden, non zauden, zertan zabilzan, ikasketekin jarraitzen duzun edo lanean hasi behar izan zinen. Sarritan, ohera joan aurretik ematen zenizkidan musuen beharra sentitzen dut. Kilimak egiten nizekizunean ateratzen zitzaizun barre zoroaren falta sumatzen dut. Zure irribarreez eta jolaserako gogoaz ere oroitzen naiz askotan, bizitzeko zeneukan gogoaz, eta badakit gainerako familiakoek berdina sentitzen dutela.

Zuri idatzitako milaka gutun egongo dira munduan zehar galdua. Batzuk etxeko gorabeherez berri emateko bidaliak izan ziren, beste batzuk gure bidaiei buruz hitz egiteko eta beste hainbeste zu zoriartzeko. Zoritxarrez, bat bera ere ez da zuregana iritsi.

Ez pentsatu zu aurkitzen saiatu ez garenik. Ahalegin ugari egin arren, oraindik ez dugu ezer lortu, baina ez dugu etsiko, eta zure bila jarraituko dugu elkarrekin egon arte.

Orduak eta orduak igaroko nituzke zuri esan eta kontatu nahi dizkizudanak gutun honetara pasatzen, baina ez naiz gai sentitzen hori guztia paper zati batean plasmatzeko, hitz egiten idazten baina hobeto moldatu izan bainaiz beti.

Berriren bat daukadanean edo zuri idazteko beharra sentitzen dudanean zuzenduko natzaizu berriz. Beno, gutxienez gutunak idatziko dizkizut, ez baitakit inoiz helduko zaizkizun.

Ondo pasa zure 20.urtebetetzean, eta muxu handi bana etxeko guztien partetik.

Laster arte. Maite zaitugu.

Nere, zure ama